


FUNTSEZKO JARDUERAK

Etorkizun batean gure helburua betetzeko, jarraitu behar ditugun pausuak zehaztu eta ondo definituta izan behar ditugu. Horretarako, kanpoko organismoekin harreman onak izatea ezinbestekoa da.

Gure proiektua zaborraren bilketan oinarritzen denez, bezeroak birziklapen munduari buruz kontzientziatu behar genituzke, gure enpresan konfiantza lortzeko.

Teknologian eta diseinuan emango diren garapenak, baita guk eginikoak ere, kontuan izan beharko ditugu gure enpresaren zerbitzua hobetzeko. Horretarako, gaur egun dauden ingeniaritza-diseinu aurreratuetan oinarrituko gara, gure sistema .



Gure enpresak bezeroekin kontaktuan jartzeko eta emango dugun zerbitzuari buruzko informazioa erakusteko, webgune bat sortuko dugu , horrek asko lagundu egingo gaitu sektorean ezagunak izateko. Webgune hau kontrolatu, kudeatu, mantendu eta sustatzeko pertsonala kontratatu egingo da horretaz arduratzeko eta bezeroei gauzak informatzeko. Gure kasuan, material garrantzitsuena proiektuarekin aurrera egiteko aluminiozko hodiak dira, beraz, kalitate eta prezio onean saltzen dituzten enpresekin kontaktuan jarriko gara. Beste hornitzaileekin harreman onak ere izango ditugu, arazoak egotekotan, hauei aurre egiteko gai izateko konponbide ezberdinetan oinarrituz.